

VII.BENITO ANSOLA SARIA

Euskaltzaleen Topaguneak, BENITO ANSOLA SARIA sortu zuen 2010ean, euskal kultura zabaldu eta ikus-entzunezkoen ekoizle gazteei laguntza emateko asmoz.

Lekeitioko Euskal Zine Bilerak eta Euskaltzaleen Topaguneak, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren laguntzaz, 7. edizioa antolatuko du 2023an, publiko egingo dugularik 2022ko urrian.

Saridunak 3.000 euroko* diru-laguntza izango du, ondorengo oinarrien arabera.

(*) dagokion atxikipena aplikatuko zaio.

OINARRIAK:

1. PARTE-HARTZAILEAK

Deialdian Euskal Herrian bizi edo jaio diren gazte euskaldunek parte hartu ahal izango dute, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- Bakarka nahiz taldeka aurkeztuz gero, gutxienez 18 urte beteta izan beharko dira oinarri hauen argitalpen egunean eta lana entregatzean 36 urte bete gabe.
- Taldean aurkeztuz gero, talde teknikoaren adina hartuko da kontuan, ez ekoizpenean agertzen diren aktore edo pertsonaiena.
- Sarietako aurreko deialdian irabazle suertatu ez badira.

2. LANEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Deialdi honetara, ikus-entzunezko lanak (fikzio, sorkuntza, animazio nahiz dokumentalak) egiteko proiektuak aurkeztu daitezke, **originalak eta inon argitaratu ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak**.
- **Euskararen presentzia** ezinbestekoa izango da, ahozkoa edo idatzizkoa euskara hutsean. Beste edozein hizkuntzaren presentzia, ikus-entzunezkoan ondo arrazoitu beharko da.

- Ikus-entzunezkoaren iraupena gutxienez 9 eta gehienez 18 minutukoa izango da animaziozkoak ez diren ikus-entzunezkoentzat eta gutxienez 3 eta gehienez 18 minutukoa izango da animaziozko lanen kasuan.

3. LANEN AURKEZPENA

Benito Ansolaren VII. edizioko deialdia zabalik egongo da **2022ko urriaren 23tik 2023ko urtarrilaren 15era**. Epe honetan parte-hartzaileek beren proiektuak **email bidez** aurkeztu beharko dituzte (4.1 eta 4.2 atalean eskatzen diren dokumentuak) :

Nori zuzendua: kultura@topagunea.eus

Gaia: VII. Benito Ansoła Saria. (Proiektuaren izena)

➤ **Parte hartzaileen datuak.**

Mezuari atxikita, dokumentu bakar batean:

- Egilearen edo taldekide bakoitzaren izen abizenak
- Helbide fisikoa
- Posta elektronikoa
- Telefono mugikorreko zenbakia
- Nortasun agiriaren irudia.
- Egilearen argazki bat. Taldeen kasuan, bakoitzaren argazkiaz gain, taldeko argazkia ere gehitu beharko da.

➤ **Proiektuaren dossierra.**

Mezuari atxikirik, dokumentu bakar batean:

- **Proiektuaren portada.** Proiektuaren izena eta irudiren bat. Ez du izango egilea(k) identifikatzeko balio dezakeen daturik.
- Landu nahi den ikus-entzunezkoaren **gidoia, eskaleta edo storyboard-a**. (Gehienez 3 orri)
- **Zuzendariaren memoria:** landu nahi den ikus-entzunezkoaren azalpenarekin (izenburua, sinopsia, argumentua, iraupena, generoa). Halaber, memorian zuzendariak azaldu ahal du, ikuspegi pertsonaletik, bere ibilbidea, aurkezten duen lanaren zergatia, zer adierazi nahi den... (Gehienez 3 orri).
- Ikus-entzunezkoaren **aurrekontu justifikatua**
- **Ekoizpen plana:** non eta noiz filmatuko den, zein ekipo tekniko, baliabide edo eta alokairuak egingo diren eta abar.

4. FINALISTEN AUKERAKETA

- VII. Benito Ansoła sariaren epaimahaikideak Maider Oleaga (gidoilari eta zinema zuzendaria) eta Izaskun Urkijo, (arte zuzendaria) izango dira.

- Bi epaimahaikidek aurreko atalean agertzen diren baldintzak betetzen dituzten proiektu guztiak aztertu, eta hauetako **3 aukeratuko ditu**.
- Aukeratu eta ez aukeratuei, zuzenean jakinaraziko zaie epaileen erabakia email bidez **otsailaren 15ean**.
- Epaileek aukera izango dute, **informazio gehigarria edo lanen inguruko zalantzen kontsulta** egiteko zuzendariei, proiektuaren aurkezpena baino arinago.
- Epaimahaia **zinemagintza arloan ibilbide luzea duten bi profesionalak** osatuko dute.

5. PUNTUAZIOA

Aurre aukeraketarako jasotako **lanak honela puntuatuko dira**:

- Aurkeztutako gidoia/eskaleta/story-board-a: 50 puntu gehienez.
- Aurkeztutako zuzendariaren memoria: 40 puntu gehienez.
- Sorkuntzako lan prozesuan emakumeak aritzea (autorea zein lantaldea): 10 puntu gehienez.

6. KALITATEA

Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, saria eman gabe utzi dezake epaimahaiak zein antolatzaileak.

7. FINALISTAK:

Epaimahaiak aukeratutako 3 lan finalistek, **otsailaren 20an** *pitching saio* bat egingo dute proiektua epaileei aurkezteko. Saioa online izango.

- Saioan epaileak eta antolakuntza egongo dira presente.
- Aurkezpen hauek grabatuak izango dira epaimahaiaren erabilerarako bakarrik. Erabakia hartu eta gero ezabatu egingo dira.
- Epaimahaiak aurkezpenak entzun ostean, egun berean (otsailaren 20an) erabakiko eta adieraziko dute zein izango den VII. Benito Ansola sariko irabazlea. Antolakuntza egun horretan jarriko da kontaktuan 3 finalistekin epaimahaiak ebatzitakoa adierazteko.

8. LANAREN AURKEZPEN ETA ENTREGA:

Lan irabazlearen egileak 2023ko **Lekeitioko Euskal Zine bileran** lanaren beraren eta garapenaren *work in progress* aurkezpen bat egingo du, material grafikoarekin Benito Ansola sariari eskainitako espazioan.

Irabazleak, 2024an entregatuko du ikus-entzunezko amaitua. Data konkretua 2024ko Zine bilerako lehiaketan parte-hartzeko oinarrietan ezarritakoa izango da eta irabazleak oinarri horietan zehaztutako epean Zine bilerako webgunean izena eman beharko du.

9. EUSKAL ZINE BILERAN PRESENTZIA

Lan irabazlearen egilea 2023 eta 2024ko Lekeitioko Euskal Zine bilerara bertaratu beharko da modu presentzialean; 2023an proiektuaren aurkezpena egiteko; 2024an lanaren estreinaldirako.

10. ORDAINKETA

Sariaren kopuruaren erdia (1.500 euro), lan irabazlea izendatu bezain laster jasoko du irabazleak, eta beste erdia, ikus-entzunezkoa amaitu eta Lekeitioko Euskal Zine Bileran aurkezten duen unean.

11. KREDITUAK

- Lanaren bukaerako kredituetan sariaren aipamena egingo da nahitaez, antolatzaileek adierazitako testu eta logo edo/eta irudiekin.
- Esleipena egin ondoren, egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, antolatzaileei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onespena jaso beharko du.
- Ikus-entzunezkoaren sortzaileak edo sortzaile taldeak lana entregatuko ez balu, edo lan horren izaera eta kalitatea, epaimahaikoen iritziz, proiektuan azaldutakoaren aldean nabarmen kaxkarragoak balira, itzuli egin beharko du jasotako dirua.
- *Kontrola ezinak* diren egoerengatik, lanaren bukaera, entrega datak edo bestelakoak ezin badira bete, antolatzaileekin batera adostuko da sariaren egoera.

12. LANAREN JABEGOA

Diru-laguntza jasotako **lanaren jabetza egilearena** izango da. Alabaina, lan hori **ezin izango da jendaurrean erakutsi, Lekeitioko 2024ko Euskal Zine Bilera jaialdian estreinatu eta ekitaldi hau bukatu bitartean.**

- Benito Ansoa Saria jaso duen lana Lekeitioko Zine Bilerako lehiaketan sartuko da zuzenean, eta bere lehen emanaldia honako hau izango da.
- Ikus-entzunezko saritua urte bereko 2024ko Durangoko Azokako Irudienea gunean proiektatuko da eta 2025eko Laburbira Euskarazko Ikusentzunezko laburren zirkuitoan izango da, betiere, lehiaketa horretako baldintzak betetzen baldin baditu.
- Lan saritua beste lehiaketa batzuetara aurkeztu ahal izango da, betiere oinarri hauetan aipatzen diren baldintzekin kontraesanean erortzen ez bada.

OHARRAK

- Antolatzaileek ez dute bere egiten lanen proiektu eta lan bukatuetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota emandako iritziak. Beraz, ez dute inongo erantzukizunik.

- Oinarrien ulermenean zalantzarik balego, Euskaltzaleen Topaguneari dagokio erabakitzea. Egokia dela erabakitzen badu, parte hartzaileek bete beharreko baldintzak zein oinarriak aldatzeko eskumena izango du.
- Sari-deialdi honetan parte hartzeak, bertako oinarriak ontzat ematea dakar.

Edozein argibidetakoa kontaktua:

kultura@topagunea.eus

Euskaltzaleen Topagunea